

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ribaforada, Cabanillas eta Fustiñanako DBHko ikasleak hartzeko ikastetxe berria egingo du Hezkuntzak

Lanak 2019an hasiko dira eta ia 4 milioi euroko aurrekontua izango dute

Asteazkena, 2017.eko apirilak 26

Hezkuntza Departamentuak jakinarazi du Ribaforada, Cabanillas zein Fustiñanako DBHko ikasleak hartuko dituen ikastetxe berriari ekingo diola datorren urtean. Ikastetxe berria egiteko akordioa hiru udalerrietako ikastetxe publikoetako ikasle eta guraso elkarteetan nahiz udalen eskariari erantzutera dator eta aurreikusitako epeen arabera, lanak 2019an hasiko dira.

Gaur egun hiru udalerri horietako 424 ikasle ari dira DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ikasketak gauzatzen Tuterako Valle del Ebro eta Benjamin de Tudela institutuetan eta CIP-ETI ikastetxean, baina zentroak euren ahalmenaren mugan daude. Horregatik, eta Departamenduaren aurreikuspenen arabera matrikula eskariak hazten segituko duenez, ezinbestekoa eta estrategikoa bihurtu da ikastetxe berriari lehenbailehen ekitea.

Hala, lanak 2019ko urtean hasiko dira eta ia 4 milioi euroko aurrekontua izango dute. Aurretik, 2018ko Nafarroako aurrekontu-proiektuak ikastetxearen diseinua eta lanaren zuzendaritzari dagokion diru-partida jasoko du (197.024 euro) eta 2019rako aurrekontuetan jasoko da lanak egiteko diru-partida (3.745.747 euro).

DBHko ikastetxe berriaren kokapenari dagokionez, Departamenduak behin betiko erabakia hartu ez badu ere, hiru udaletako ordezkariekin harremanetan jarriko da lekuri egokiena zehazteko; beti ere, ikasleatzat ibilbiderik laburrena zein den aintzat hartuz.